

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## ZANBRANAKO UDALA

## 2025eko ekitaldirako zerga egutegia onestea

Ikusita 2025erako zerga egutegia eta udal honek kudeatzen dituen aldizkako zergak ordaintzeko epea onetsi behar direla, eta kontuan hartuz Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoa, honen bidez, honako hau ebatzen dut:

Lehenengoa. Onestea 2025eko ekitaldirako zerga egutegia eta jakinarazpen kolektibo eta aldizkako duen borondatezko ordainketa aldia. Hona hemen:

ZERGA	BORONDATEZKO ALDIA	BETEARAZTE ALDIA
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	2025eko martxoaren 15etik maiatzaren 15era, biak barne	2025eko maiatzaren 16tik aurrera
— Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga — Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zerga	2025eko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra, biak barne	2025eko irailaren 1etik aurrera
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	2025eko urriaren 15etik abenduaren 15era, biak barne	2025eko abenduaren 16tik aurrera

Bigarrena. Zerga erroldak, zeinek ordaindu beharreko kuotak eta horien zerga elementu erabakigarriak jasotzen baitituzte, udal bulegoetan jarriko dira jendaurrean, iragarkia ALHAOn argitaratu ondoren, jendaurreko epean egoki irizten diren alegazioak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena. Dirua sartzeko moduak eta ordainketa egiteko lekuak.

A) Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta daukatenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu bera badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Bankuetan helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa gutun bidez egin beharko da, honako hauetan:

- Kutxabanken bulegoak.
- Nafarroako Rural Kutxaren bulegoetan.
- Interneten bidez, web orri honetan: [www.euskadi.eus/mipago](http://www.euskadi.eus/mipago).

Zanbrana, 2024ko irailaren 25a

Alkate-lehendakaria  
MARIA TRINIDAD ZARZA MARTÍNEZ